BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak denpora gitxi barru Batzar Nagusien aurrean agertuko dala iragarri dau, BEC-en Lehiakortasun eta Iraunkortasun Plana aurkezteko

Bilbon, 2013ko ekainaren 13an

Imanol Pradalesek, Ekonomiaren Sustapenerako Diputatuak iragarri dau Bizkaiko Batzarren aurrean agertuko dala, berak eskatuta, Bilbao Exhibition Centreren (BEC) Lehiakortasun eta Iraunkortasun Plana zehazteko. Aldundiko arduradunak, Barakaldoko Azokaren etorkizuna bermatzeko "talka plan" horren letra txikia azaltzeko egingo dauen agerpena Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen barruan burutuko da, gaur goizean, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeek alkarregaz, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, plan hori ekainaren 30a baino lehen "gauzatzea" eskatzeko aurkeztu daben Arauz Besteko Proposamena onartu dan leku berean.

Joan dan apirilaren 18an antzeko ekimena onartu eta gero Eusko Legebiltzarrean be aurkeztuko dan Lehiakortasun eta Iraunkortasun Plan horrek, Bilbao Exhibition Centreren bideragarritasuna eta oreka operatiboa bermatzeko "talka neurriak" izango ditu. Batzarretako talde guztiak bat etorri dira dokumentu hori "beharrezkoa", "preminazkoa" eta "garrantzitsua" dala esatean, azoka saneatzeko eta azpiegiturari "balioa emoteko". EAJ-PNV, PP eta Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeek bultzatu daben ekimenaren barruan, etorkizunean, BEC-eko kudeatzaileek, gitxi erabilten dan azalera "errentan emoteko edo zati batzuk saltzeko" aukerea jasoten da.

Bizkaiko Ganberaren proposamenak, bere prozeduretan indarrean dagozan arau guztiak "zorrotz" errespetau daitezan egiten dan eskaria jasoten dau, langileak kontratetako orduan publizidade, bardintasun, meritu eta gaitasun printzipioak batez be. Hori izan da, hain zuzen be, Bilduk aitatu dauen puntua, azkenean akordioagaz bat ez egiteko. Bere hiru ordezkariak abstenidu egin dira bozketan, ez dalako taldearen zuzenketa-eske bat onartu. Zuzenketa-eske horretan, langileen lan baldintzei eusteko eta lanpostuak bermatzeko aukera emongo leuken puntua sartzea proposatzen zan. PP eta EAJ-PNV taldeek ez dabe planteamendu hori onartu, zuzendaritza eta langileak une honetan egiten ari diran negoziazinoak "errespetetako".

## HITZARMENA BILBAO BASKET TALDEAGAZ

Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak saio berean hartu dau parte, PP eta PSE-EE taldeek eskatuta, Foru Aldundiaren eta Bilbao Basket taldearen artean sinatutako hitzarmen barria azaltzeko. Pradalesek, Bizkaiko Aldun Nagusiak atzo Gernikan ospatutako osoko bilkuran esan ebana baieztatu dau. José Luis Bilbaok adierazo ebanez,

talde bizkaitarrari aurreratutako 5,2 milioi euroei esker taldea ez da desagertuko eta, ganera, NBA-ko Philadelphia 76ers taldearen kontra jokatuko dan lagun arteko norgehiagoka jokatu ahal izango da, eta EEBB-etako saskibaloi selekzinoak Bilbo aukeratu daike 2014ko Munduko Saskibaloi Txapelketarako egoitza gisa. Horrek guztiak 22 milioi euro inguru ekarriko leukez Bizkaira.

Aldundiko arduradunak, Bilbao Basket taldeagaz 2014., 2015. eta 2016. urteetarako egoan hitzarmena apurtzeko erabagia hartzera eroan daben jarduketak aitatu ditu. Hitzarmen horren bitartez, taldeak 5,7 euro jasoko ebazan, 1,9 milioi denporaldi bakotxeko. Laguntza ekonomiko hori aurreratzeak, urte honen bukaeran amaituko dan hitzarmenaren sinaduraren bitartez, 500.000 euro "aurrezteko" aukerea emongo deutso Aldundiari, diputatuaren eretxiz, eskaintza ekonomikoa 2013ko balioetara eguneratu da eta. Pradalesek barriro errepikau dau emondako laguntzea, aurtengo baliabide ekonomikoak "aldatu edo erabili" barik gauzatu dala, 19,9 milioi eurokoa izan zan igazko diruzaintzako soberakina erabiliz egin dalako. Aldundiko arduradunak onartu dau beharbada "ez dala komunikazino egokirik egon alderdi politikoakaz", baina "preminaz" jokatu eta "erraza ez zan" erabagia hartu behar izan zala.

Oposizinoa harrituta agertu da Aldundiak, aurton "eliteko" taldeei diru-laguntzarik ez emoteko erespidean izan dauen aldaketea dala eta. Iñaki Egañak, PSE-EE-ko bozeroaleak, laguntza horreek "bideragarritasun planakaz" batera joan daitezala eskatu dau. Bildu taldearentzat, Aldundiak Bilbao Basketi eskinitako esku zabala beharrezkoa zan taldearentzat, "baina ez Bizkaiarentzat". "Beste lehentasun batzuk dagoz" adierazo dau Asier Vega batzarkideak. Esther Martínezek, PP-ko bozeroaleak, gogoratu dau EEBB-etako saskibaloi selekzinoa Bilbon egotea ez dagoala ziurtatuta. Batzarretako taldeek zalantzan jarri dabe, baita, Munduko Saskibaloi Txapelketaren egoitza izateak holango eragin ekonomikorik izango dauenik.

Bigarren agerraldian, Pradalesek esan dau laguntzea 2013. urtera aurreratzea, "salbuespenezko eta preminazko" egoera baten ondorioa dala. Joan dan urtean, aurrekontuak burutzen ari ziran bitartean, talde profesionalen artean, abagune ekonomiko gogorraren ondorioz laguntzetan urtebeteko gabezia "adostu" zanean, oso gatxa zan egoera hori aurreikustea.

Oposizinoko taldeei erantzunez, Josu Artetak (EAJ-PNV) azaldu dau eragin ekonomikoa "aurreikustea gatxa dala", baina Japonian jokatutako azken Munduko Saskibaloi Txapelketaren esperientzia hartu dabela kontuan. EEBB-k jolastu eban uriak 20 milioi euro jaso ebazala adierazo dau.

## ONARTUTAKO PROPOSAMENAK

Beste alde batetik, saio berean, aho batez onartu dira PP-k aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bi, Aldundiak autonomoei zuzendutako atari digitalaren sorkuntza bultzatu daian, eta Bizkaian Turismo Ornitologikorako Plana jasoko dauen azterlana egin daian.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# El Diputado de Promoción Económica anuncia su próxima comparecencia en las Juntas Generales para presentar el Plan de Competitividad y Sostenibilidad del BEC

En Bilbao, a 13 de junio de 2013

El Diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha anunciado que comparecerá en las Juntas Generales de Bizkaia a petición propia para desmenuzar el Plan de Competitividad y Sostenibilidad del Bilbao Exhibition Centre (BEC). La presencia del responsable foral para explicar la letra pequeña de este "plan de choque" para garantizar el futuro de la feria de Barakaldo se realizará en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda, en el mismo sitio en donde esta mañana se ha aprobado una Proposición No de Norma, presentada de manera conjunta por los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Popular Vizcaíno (PP), para instar al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia a "elaborar" dicho plan antes del 30 de junio de 2013.

El Plan de Competitividad y Sostenibilidad, que será presentado también en el Parlamento Vasco después de aprobarse una iniciativa parecida en esta cámara el pasado 18 de abril, deberá contener "medidas de choque" para garantizar la viabilidad y el equilibrio operativo del Bilbao Exhibition Centre. Todos los grupos junteros han coincidido en señalar que este documento es "necesario", "urgente" e "importante" para impulsar el saneamiento financiero de la feria y "poner en valor" la infraestructura. La iniciativa, apoyada finalmente por PNV, PP y el grupo Socialistas Vascos (PSE-EE), incluye la posibilidad de que en un futuro los gestores del BEC puedan decantarse por "alquileres o ventas parciales" de la superficie infrautilizada.

La petición de la Cámara vizcaína contiene una petición para que se respeten "escrupulosamente" todas las regulaciones legales vigentes en sus procedimientos y especialmente los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad en la contratación de personal. Precisamente, el tema del personal ha sido el motivo alegado por Bildu para que esta formación no se haya sumado finalmente al acuerdo. Sus tres representantes se han abstenido en la votación, al no ser aceptada una enmienda suya en la que planteaban la inclusión de un punto que permitiese mantener las condiciones laborales del personal y que garantizase los puestos de trabajo. PP y PNV han rechazado este planteamiento por "respeto" a las negociaciones que dirección y trabajadores están llevando a cabo en la actualidad.

## CONVENIO CON EL BILBAO BASKET

El diputado de Promoción Económica comparecía en la misma sesión, a petición del PP y el PSE-EE, para explicar el nuevo convenio suscrito entre la Diputación y el Bilbao

Basket. Pradales ha venido a confirmar lo que dijo ayer el Diputado General de Bizkaia, en el pleno celebrado en Gernika, en donde José Luis Bilbao informó de que los 5,2 millones de euros adelantados al club vizcaíno servirán para salvarle de la desaparición, así como para seguir optando a celebrar el amistoso contra el equipo de la NBA Philadelphia 76ers y para que la selección de EE UU elija Bilbao como sede para el Mundial de Basket de 2014, lo que podría reportar unos retornos a Bizkaia de 22 millones de euros.

El responsable foral ha hecho un repaso de las actuaciones que han llevado al equipo de gobierno foral a romper el convenio anterior con el Bilbao Basket para los años 2014, 2015 y 2016 mediante el cual el club iba a recibir 5,7 millones de euros, a razón de 1,9 millones por temporada. El adelanto de esta ayuda económica mediante la firma de un nuevo convenio que expirará a finales de este año, ha permitido a la Diputación “ahorrar” –según el diputado- 500.000 euros debido a una actualización de la oferta económica a valores de 2013. Pradales ha insistido en que la ayuda entregada se ha materializado “sin modificar o utilizar” recursos económicos de este año, sino disponiendo del remanente de tesorería del año pasado, cifrado en 19,9 millones de euros. El responsable foral ha admitido que “quizás faltó comunicación con los partidos políticos”, pero que había que actuar de manera ”urgente” y tomar una decisión que “no era sencilla”.

La oposición ha mostrado su sorpresa por el cambio de criterio de la Diputación de no subvencionar durante este año a los equipos de “élite”. El portavoz del PSE-EE, Iñaki Egaña, ha pedido además que, en el futuro, estas ayudas vayan acompañadas de “planes de viabilidad”. Para Bildu, la mano tendida ofrecida por la Diputación al Bilbao Basket era una necesidad para el club , “no para Bizkaia”. “Existen otras prioridades”, ha manifestado el juntero Asier Vega. Por su parte, Esther Martínez, portavoz del PP, ha recordado que la presencia de EE UU en Bilbao no está asegurada. Los grupos junteros han dudado también del millonario impacto económico que se obtendrá por ser sede del Mundial de baloncesto.

En una segunda intervención, Pradales ha sostenido que la decisión de adelantar la ayuda a 2013 se produce por una situación “excepcional” y “urgente” difícil de prever a finales del año pasado cuando se "pacta" entre los clubs profesionales, en el marco de la elaboración de los presupuestos, un año de carencia en las ayudas debido a la difícil coyuntura económica.

Por su parte, Josu Arteta (PNV) ha explicado, respondiendo a los grupos de la oposición, que el impacto económico es “difícil de prever” pero que cuentan con la experiencia del último Mundial celebrado en Japón. La ciudad en la que jugó EE UU obtuvo un retorno económico de 20 millones de euros, ha afirmado.

PROPOSICIONES APROBADAS

Por otro lado, en la misma sesión, se han aprobado por unanimidad dos Proposiciones No de Norma del PP para que la Diputación promueva la creación de un portal digital para autónomos, así como para que elabore un estudio que contemple un Plan de Turismo Ornitológico en Bizkaia.